

**AP-2.HE / 2. eredu**

- 1.- Zein da ZUZENA?
- a) Lantegian bakarka lan egiteaz kontra mintzatu zen hizlaria.
  - b) Ezinezkoa egin zaigu egoera hobean dagoen egunkari bat aurkitu.
  - c) Badaki makinaz idaztea, baina nahiago du eskuz idatzi.
  - d) Nekatuta banengoen ere, txostena prestatzera behartu ninduten.
- 2.- *Futbol-talde bateko ..... izan nahi baduzu, urtean diru asko ordaindu beharko duzu.*
- a) jokaldia
  - b) hizlaria
  - c) bazkidea
  - d) lankidea
- 3.- *Salaketa bat jarriko didatela pentsatzen dudan bakoitzean .....*
- a) oilo ipurdia jartzen zait.
  - b) larrugorritan jartzen naiz.
  - c) sasoian egoten naiz.
  - d) kale egiten dut.
- 4.- *Duela hamar urte Bartzelonako kafetegi batean elkar ezagutu .....*
- a) ziren.
  - b) zuten.
  - c) zieten.
  - d) zituzten.
- 5.- *Euskaldunok itsasoarekin izan dugun harremana estua izan den arren,.....*
- a) nahiko gutxi dakigu gure arrantzaz eta itsasgizonen ohitura eta istorioez.
  - b) itsasontzi tradizionalen ikerketa eta eraikuntza zentroa sortu zen.
  - c) itsasgizon euskaldunak oso trebeak izan dira arrantza egiten.
  - d) itsasoak duen aberastasuna babestu egin behar da.
- 6.- Zein da ZUZENA?
- a) Aldizkariak erosten jarraituko ditut.
  - b) Platerak mahai gainean jartzen lagunduko dizkizut.
  - c) Orain ulertzen ditut gurasoen esanak.
  - d) Praka berriak erosten utzi dizkidazu.

- 7.- ..... elurretan sartu nituenean, behatz puntak izoztuta geratu zitzaizkidan, oinutsik nindoan eta.
- a) Giharrak
  - b) Besoak
  - c) Zangoak
  - d) Eskumuturrak
- 8.- Zein da ZUZENA?
- a) Madrilean izandako bileran gauza asko lortu genituen.
  - b) Gaur Amaiari ikusi diot eta zuretzako goraintziak eman dizkit.
  - c) Zein kalean dago nagusiak aipatu digun jatetxea?
  - d) Liburu horretan euskaraz ondo idazteko arauak agertzen dira.
- 9.- Egiten ari zena bertan behera utzi eta umearen bila joan zen. Zer esan nahi du azpimarratutakoak?
- a) Bukatu gabe utzi zuela.
  - b) Lurrean utzi zuela.
  - c) Lur jota utzi zuela.
  - d) Txiki-txiki eginda utzi zuela.
- 10.- Elkarte bietako bozeramaileek istilua izan zutenetik, ez dira ..... hurbildu ere egiten.
- a) elkarrekin
  - b) elkarrengana
  - c) elkarrengandik
  - d) elkarrengan
- 11.- Erosketak etxera bidaltzeko, kutxazainari esan ....., eta berehala bidaliko dizkizu.
- a) iezazkiozu
  - b) itzazu
  - c) diezaiokezu
  - d) dezakezu
- 12.- Nola esaten zaio onura edo probetxua lortzeko egiten den engainuari?
- a) Alferkeria.
  - b) Aitzakia.
  - c) Okerra.
  - d) Iruzurra.

- 13.- *Ikastaroaren antolatzaileak ..... esan zigun datorren astean ordezeko batek emango zuela ikastaroa.*
- a) bera
  - b) berarentzat
  - c) berak
  - d) beragatik
- 14.- *Umeei telebista zenbat eta nola ikusi behar duten esan behar zaie, telebista orduak gora egin ahala notek behera egiten dutelako. Zein da esaldi horren PAREKOA?*
- a) Umeei ea telebista ikusi behar duten esan behar zaie, notek behera egiten dutelako.
  - b) Telebista orduak gora egiten badute ere, notek ez dute behera egiten.
  - c) Telebista orduak gora egiten duten heinean, notek behera egiten dute.
  - d) Umeei telebista ikusten dutelako nota txarrak ateratzen dituzte.
- 15.- Zein da ZUZENA?
- a) Peruri gorriak pasarazi zaio.
  - b) Peruri gorriak pasarazi diot.
  - c) Peruri gorriak pasarazi dut.
  - d) Peruri gorriak pasarazi dizkiot.
- 16.- *Nahiz eta lanerako baliabide berriak lantegi guztietara oso ..... egon, oraindik ere Internet ez duten lantegiak aurki ditzakegu.*
- a) sailkatuta
  - b) hedatuta
  - c) egituratuta
  - d) luzatuta
- 17.- *Horrelakoetan, «zozoak beleari ipurbeltz» .....*
- a) esango ote da.
  - b) esan antza da.
  - c) esaten al da.
  - d) esan ohi da.
- 18.- *Diru asko duzula? Niri.....*
- a) baietz!
  - b) bost axola!
  - c) auskalo!
  - d) berdin!

- 19.- *Merkealdia iristen denean, premiazko gauzak ez ezik, bestelakoak ere erosten ditut eta ..... gabe gelditzen naiz.*
- a) zorrik
  - b) aitorpenik
  - c) aurrezkirik
  - d) eragiketarik
- 20.- *Etxeko konponketak egiteko aurrekontua zenbat eta zehatzagoa izan ..... errazago egingo ditugu erreklamazioak.*
- a) baldin eta
  - b) zenbat eta
  - c) harik eta
  - d) orduan eta
- 21.- ..... *ertzaintzara deitu eta polizia-etxera eraman zuten.*
- a) Auzokoaren etxean kuxkuxean harrapatu zutenez,
  - b) Lapurretan harrapatzen zuten bakoitzean,
  - c) Bai atezaina, bai neskamea,
  - d) Auzoko mutila igogailuan ez gora eta ez behera gelditzean,
- 22.- *Alkateak herriko jaietako herri-bazkarian ahalik eta jende ..... biltzea espero zuen.*
- a) gehiago
  - b) asko
  - c) gehiena
  - d) gehiegi
- 23.- *Igandeko egunkariaren ..... agertu ziren lan-eskaintzak irakurriz gero, lanen bat aurki dezakezu.*
- a) ordainagirian
  - b) eranskinean
  - c) hitzaurrean
  - d) oniritzian
- 24.- *Lisboako kale ..... batzuk baino ez ditut ezagutzen.*
- a) bakoitza
  - b) banaka
  - c) bana
  - d) bakarka

- 25.- ..... liburutegi guztia arakatu ondoren, ezin izan dugu bilatzen ari ginen liburua aurkitu.
- a) Liburuzainek eta biok
  - b) Liburuzaina eta biok
  - c) Liburuzainak eta biok
  - d) Liburuzain eta biok
- 26.- Sarrerako atea irekita utziz gero, edonor sar .....
- a) litezke.
  - b) litzateke.
  - c) liteke.
  - d) lirateke.
- 27.- Taldekideen arteko istiluak argitzeko eta konpontzeko, ..... bat egin beharko zenukete guztion artean.
- a) araudi
  - b) etekin
  - c) fitxategi
  - d) zuzenbide
- 28.- Enpresako idazkaria oso lagun ona dut. Ziur nago ..... truke egingo dizula mesedea.
- a) huskeria
  - b) bateren
  - c) ezer
  - d) hutsaren
- 29.- Ezkontza ostean, senar-emazteak lorez josi zituzten eliza-atarian gonbidatuek. Zer esan nahi du azpimarratutakoak?
- a) Gonbidatuek senar-emazteei loreak josi zizkietela.
  - b) Senar-emazteei lore asko bota zizkietela.
  - c) Senar-emazteek loreak josi zituztela eliza-atarian.
  - d) Senar-emazteek lorez beteta aurkitu zutela eliza.
- 30.- Nire ustez, .....
- a) ezinezkoa denik hori egia izatea.
  - b) genetika behar bezala erabiltzea onuragarria izan daitekeela pentsatzen dut, batez ere landareetan.
  - c) gaur eguneko gauzarik garrantzitsuen ongizatea dela.
  - d) geure buruarekin gustura egoteko beharrezkoa da konplexuak alde batera uztea.

- 31.- Zer da norbaitek zerbait gaizki egin duela edo huts egin duela esan edo aurpegiatzea?
- a) Errieta egitea.
  - b) Liskarra sortzea.
  - c) Borroka egitea.
  - d) Aurpegia ematea.
- 32.- Zaborrak murrizteko plastikozko poltsak erabili beharrean, paperezkoak erabiltzea egokiagoa izango litzateke. Zein da PAREKOA?
- a) Zaborrak murrizteko, plastikozko poltsak erabiltzea paperezkoak erabiltzea baino aproposagoa izango litzateke.
  - b) Zaborrak murrizteko, beharrezkoa da paperezko poltsak erabiltzea baina ez plastikozkoak.
  - c) Zaborrak murrizteko plastikozko poltsak erabili aurretik, paperezkoak erabiltzea egokiagoa izango litzateke.
  - d) Zaborrak murrizteko, plastikozko poltsen ordez, paperezkoak erabiltzea egokiagoa izango litzateke.
- 33.- Enpresa horretara zuzendari berria etorri denetik, lantegiak ..... izan ditu.
- a) galerak
  - b) zergak
  - c) altxorak
  - d) salneurriak
- 34.- Eusko Jaurlaritzan egiten du lan, Hezkuntza Sailean, .....
- a) esate baterako.
  - b) beraz.
  - c) hain zuzen.
  - d) behintzat.
- 35.- Afaria geuk egin ....., baina beste batek egitea erosoagoa izango dela pentsatu dugu.
- a) genezake
  - b) genioke
  - c) gaitezke
  - d) genuke

- 36.- *Ideia horrekin aurrera egiteko bazkideen ..... behar duzu.*
- a) onbearra
  - b) onespena
  - c) onura
  - d) ongarria
- 37.- *Ezezkoa ....., emadazu orain.*
- a) ematerakoan
  - b) ematean
  - c) ematen
  - d) ematekotan
- 38.- *Euskal Herrian bertsolaritzaren alor desberdinak lantzen ari dira, gerora ere bertsolaritzak jarraipena izan .....*
- a) dadin.
  - b) diezaion.
  - c) daitezen.
  - d) dezan.
- 39.- *Iturginari ordaindu .....? Bai, gizona, bai.*
- a) diodana
  - b) diot
  - c) diodan
  - d) diodalako
- 40.- *Merezi, merezi ez duzun arren, aprobatea lortu duzu. Zein da horren PAREKOA?*
- a) Ez duzu aprobatu, merezi ez duzulako.
  - b) Ez duzu merezi baina aprobatu egin duzu.
  - c) Aprobata lortu duzunez, merezi duzu.
  - d) Merezi duzulakoan, aprobata lortu duzu.
- 41.- Zein da ZUZENA?
- a) Zuen berrien zain, adeitasunez agur.
  - b) Zuen berriak zain, adeitasunez agur.
  - c) Zuen berrientzat zain, adeitasunez agur.
  - d) Zuen berriari zain, adeitasunez agur.

42.- *Mahai gainean dagoen dirua hartzeaz gogoratuko ....., afaltzera gonbidatuko .....*

- a) banu/nioke
- b) banintz/nuke
- c) banu/nuke
- d) banintz/nioke

43.- *Frantziako presidentek ..... dauka, dorretxe dotore horietako bat.*

- a) izugarri etxea
- b) etxe izugarrizko
- c) izugarrizko etxea
- d) izugarriz etxea

44.- *Kazetaritza ikasten has ....., baina beste karrera bat ikastea erabaki nuen.*

- a) nezakeen
- b) nezan
- c) nintekeen
- d) nukeen

45.- *Zure deia jasotakoan, etxera joan nintzaion. Zein da esaldi horren PAREKOA?*

- a) Zure deia jaso bitartean, etxera joan nintzaion.
- b) Zure deia jaso ondoren, etxera joan nintzaion.
- c) Zure deia jaso baino lehen, etxera joan nintzaion.
- d) Zure deia jaso arte, etxera joan nintzaion.

## AP-2.HE / 2. eredua

### ERANTZUN ZUZENEN ORRIA

1.	D	2.	C	3.	A	4.	B	5.	A
6.	C	7.	C	8.	D	9.	A	10.	B
11.	C	12.	D	13.	C	14.	C	15.	D
16.	B	17.	D	18.	B	19.	C	20.	D
21.	A	22.	C	23.	B	24.	B	25.	C
26.	C	27.	A	28.	D	29.	B	30.	D
31.	A	32.	D	33.	A	34.	C	35.	A
36.	B	37.	D	38.	D	39.	C	40.	B
41.	A	42.	B	43.	C	44.	C	45.	B